

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/12/18 HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00 - 19:25	TOKIA Udaletxea
--	--------------------

BILDUTAKOAK:

- Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)
- Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.
Iñaki Arriaga, Udaltzainburua

BILDU EZ DIREN Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)
UDALKIDEAK:

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

I. AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2014ko abenduaren 2ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

2.- FIJACIÓN DE TARIFAS PARA EL EJERCICIO 2015 CORRESPONDIENTE A LA CONCESIÓN ADMINISTRATIVA PARA LA EXPLOTACIÓN DEL COMPLEJO DE APARCAMIENTOS DE BITERI Y LAUBIDE. (2004HOIE0004)

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprueba y eleva a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Urbanismo:

Por los Servicios Técnicos Municipales, se presenta la propuesta actualizada de fijación de tarifas para el ejercicio 2015 correspondientes a la explotación del Aparcamiento de Biteri, de conformidad con lo previsto en la concesión para “REDACCION DEL PROYECTO, CONSTRUCCION, URBANIZACION Y EXPLOTACION DEL COMPLEJO DE PARCAMIENTOS DE LAUBIDE Y GARIBAI”. El alcance de las mismas es el que se señala a continuación.

Tarifas:

- | | |
|---|-----------------|
| 1.- <u>Tarifa ordinaria:</u> | 0,036 € /minuto |
| 2.- <u>Tarifas especiales:</u> | |
| a.- Alquiler mensual diurno renovable
(de 8:30 a 20:30, de lunes a sábado incluido)..... | 68,16 € |
| b.- Alquiler mensual nocturno renovable
(de 20:30 a 8:30, de lunes a sábado incluido)..... | 51,88 € |
| c.- Abono semanal (24 horas)..... | 42,83 € |
| d.- Abono mensual renovable (24 horas)..... | 105,56 € |

Dada cuenta de lo anterior, esta Comisión de Urbanismo propone al Pleno de la Corporación la adopción del siguiente acuerdo:

I.- Aprobare las Tarifas de Explotación del Aparcamiento de Biteri arriba relacionadas, las cuales entrarán en vigor el 1 de Enero de 2015 tendrán vigencia durante el ejercicio del 2015 entendidas las mismas como precios máximos de aplicación para el citado período.

II.- Comunicar las anteriores tarifas a la empresa adjudicataria “GESPARK INVERSIONES 2008, S.L.”, en la persona de D. Alberto Urbaneja Negro como Administrador Concursal de la misma, a los efectos arriba referidos.

3.- KIROLAREN EREMUARI DAGOKION BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKOR BERRIA SORTZEA (2014PBAJ0004)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatzarrak 2014ko ekainaren 3an hartutako akordioaren arabera, eta dagokion espedientea izapidetu eta gero, deseginda geldituko da 2015eko urtarrilaren lehen egunetik aurrera, Arrasateko Udalaren Kirol Erakunde Autonomoa (AUKEA). Horren ondorioz, Udalak beregain hartuko du kirol zerbitzuen kudeaketa, beste sail bat bezala kudeatuz.

Hori kontuan hartuta, eta ikusirik:

- Erregimen Lokaleko Oinarriak ararautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 20.1.c. artikulua ezarritakoa,
- Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 123 eta hurrengoko artikuluek aurreikusitakoa,
- Arrasateko Udal Araudi Organikoaren 38. 39 eta 20 artikuluek xedatutakoa, beharrezkoa jo da batzorde informatibo iraunkor berri bat sortzea, Kirolaren eremuari bideratuta.

Gaia aztertuta, Pertsonal batzorde informatibo honek haxe proposatu du:

Lehenik.- KIROLA izeneko batzorde informatibo iraunkorra sortzea, kirol arloaren azterketa egitea, informatzea eta kontsulta egitea xede izango duena.

Bigarrenik.- KIROLA Batzorde Informatibo Iraunkor hau Udal Plenoan ordezkaturako Udal Talde bakoitzeko ordezkari batekin osatuko da.

Alkateak besterik erabaki bitartean, orain arte AUKEAko gobernu batzordeko zinegotzi partaideak izango dira batzorde berriko kideak.

Hirugarrenik.- KIROLA Batzorde Informatiboak Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 123. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera funtzionatuko du.

Laugarrenik.- Batzorde berriak hamabostean behin egingo ditu bere bilera arruntak.

Bostgarrenik.- Akordio honek 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

4.- 2015EKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA. (2014PRPT0002)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikulua xedatzen du Udal Korporazioek egingo dituztela euren antolaketako lanpostu guztien zerrendak, eta agindu edo arau horrek eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.4 artikulua, Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bat egin onartzen duena, gehitzen dute, lanpostu horiek egokituko zaizkiela Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak Euskal Autonomia Erkidegorako Funtzio Publikoari buruz osatuta duen oinarritzko legerian jasotako terminoei.

Bestalde, Enplegu Publikoaren Oinarritzko Estatutua erregulatzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legeak ezartzen du ere Administrazio Publikoek egituratuko dutela euren antolamendua lanpostuen zerrenden bidez eta antzeko beste tresna batzuen bidez, eta horiek osatuko dituzten, behintzat, lanpostuen izenak, sailkapen profesionaleko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, hala badagokie, hornitzeko sistemak eta ordainketa osagarriak.

Egon dauden beharrak zehazteko prozesua bukatu eta gero, azken hilabeteotan udal sailen partaidetzaz egin dena, Pertsonal Sailak 2015 urteko lanpostuen zerrenda egin du (ERANSKINA), ezarritako gutxieneko beharrezko datuak jasotzen dituen ereduan eta Udaleko langile funtzionario, lan-kontratatuko langile eta behi-behineko langileentzako diren lanpostu guztiak hartzen dituen, aurrekontu dotazioa dutenak.

Pertsonal Batzordeak, gaiak ikusi eta jorratu ostean, eta hainbat aldaketa sartu eta gero zirriborro horretan, proposatzen du:

Lehena: Onartzea 2015eko Lanpostuen Zerrenda, Eranskinean datorren agiriaren arabera.

Bigarrena: GAOn argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.

5.- 2015EKO PLANTILA ORGANIKOAREN ONARPENA. (2014PRPT0002)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.1. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.1 artikulua xedatzen dute Toki Korporazioari dagokiola, aurrekontuaren bidez, Plantila Organikoa onartzea urtero, funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak bilduko dituen.

Hori dela eta, 7/1985 Legearen 90 artikuluan jasotako arrazionalitatea, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera agiri hori prestatu eta gero, Pertsonal Batzordeak akordio hau hartzeko proposatzen dio udalbatzarrari:

Lehena: 2015eko urtealdirako Plantila Organikoa onartzea; funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak hartzen dituen, ERANSKINean datorren ereduaren arabera.

Bigarrena: GAO on argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.

6.- 2015eko APARTEKO ORDAINSARIEN AURRERATZERAREN INGURUKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA. (2012PPER0013)

Idazkariak 2014ko abenduaren 4ko ondoko ebazpena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

20/2012 Errege Lege-Dekretuak, uztailaren 13koa, administrazio publikoen aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna bermatzeko neurri bereziak buruzkoa, 2. artikuluan ezartzen du 2012an sektore publikoko langileek murriztuta izango dituztela lansariak, abenduko lansari bereziaren baliokidea den zenbatekoan.

Aipatu artikulua oinarritzko izaera du eta, hortaz, nahitaez aplikatu behar da ere Udal honen zerbitzuan dagoen langileei dagokienez.

Lansari berezi hori kendu izanaren ondorioak zati batean arintze aldera, eta, gainera, 2010az geroztik langile publikoek erosteko ahalmenean galera izan dutenez, egoki iritzi dio Udalak, batetik, 2012ko abenduko nominari dagokion ordainketa aurreratzeari eta, bestetik, aurrerakinak emateko prozedura berezi bat bideratzeari, dagokion ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

Hori horrela, 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien aparteko ordainsariak urtarrilean (ekainekoa) eta ekainean (abendukoa) ordaindu izan dira.

Alkatetzak 2012ko abenduaren 19an emandako ebazpenean jasotakoaren arabera aurreko neurriok indarrean egongo dira hurrengo ekitaldietan, 20/2012 ELD-ren 2. artikulua 4. atalean jasotako destinoa ez aplikatzea gauzatu edota erabaki arte.

Hori guzti hori dela eta, eta legeek ematen dizkidaten eskuduntzez baliaturik,

ERABAKI DUT:

LEHENA.- 2014ko abenduko nominari dagokion ordainketa aurreratzea, abenduaren 19an gauzatuko dena.

BIGARRENA.- Udaleko langile publikoei ematea 2015eko ekaineko eta abenduko lansari berezien konturako aurrerakinak, hurrenez hurren, urtarrileko eta ekaineko lehen hamabostaldietan gauzatuko direnak.

HIRUGARRENA.- Aurrerakinaren eremu subjektiboak hartzen ditu langile finkoak, behin-behineko langileak eta aldi batekoak, betiere zerbitzu harremanak irauten badu hurrengo sei hilabeteetan, behintzat. Aurreikusitako iraupena txikiagoa bada, aurrerakina proportzioz zuzenduko da. Baldin eta, lansari bereziaren konturako ordainketa aurreratu eta gero, zerbitzu harremana bukatzen bada pentsatu baino lehen edozein arrazoirengatik, likidazioa egingo da eta, hala badagokio, sobera jasotako kopurua itzuliko da.

Aurrerakin hori jaso nahi ez duten udal langileek hala adierazi beharko dute abenduaren 26a baino lehen, Pertsonal sailera bidalitako idatzi baten bidez.

LAUGARRENA.- Aurrerakinaren zenbatekoa izango da dagokion lansariaren simulazioaren zenbateko garbiaren baliokidea.

BOSGARRENA.- Ematen diren aurrerakinek ez dute sortuko interesik eta itzuli egingo dira, ofizioz, konpentsazio bidez, hurrenez hurren, 2015eko ekainean eta abenduan, hil horiei dagozkien lansari berezien sortzapenaren bidez. Lansari berezi horien kontura itzuli/kompentsatzerik ez badago, beste hilabete batzuetako nominen kontura izango dira, hala behar izanez gero.

SEIGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Udalaren zerbitzuan dauden langileei, bai eta udal kontu-hartzailetzari ere. Halaber, honen berri emango zaio Udalbatzarrari, egiten duen hurrengo bileran.

7.- KIROLA BATZORDE INFORMATZAILEAREN LEHENDAKARITZA DELEGATZEA. (2014SKOR0001)

Idazkariak 2014ko abenduaren 12ko ondoko ebazpena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 artikuluan, Udal Araudi Organikoko 40 artikuluan, bai eta Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua onartuz azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 125 artikulua ematen dizkidan eskurantzeko baliatuz

Legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz, honen bidez, hauxe ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Ondoren adierazten den zinegotziarengan eskuordetzea honako Batzorde Informatzailearen Lehendakaritza, indarrean dagoen legediak organo kolegiatuen lehendakaritzari ematen dizkion eskuduntzekin, beti ere, udalbatzak batzordea sortzeko erabakia onartuz gero:

KIROLA Batzorde Informatzailea : Joseba Erramun Askasibar Zendoia

Bigarren.- Dekretu honen berri ematea eskuordetutako zinegotziari, onar dezan; jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan honen aurka ezer adierazten ez bada eskuordetutako eskuduntza tazitoki onartu dela ulertuko da.

Hirugarren.- Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea egingo duen hurrengo bileran eta, aldi berean, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

Laugarren.- Dekretu hau Alkatezako Ebazpen Liburuan transkribatu behar da eta eragina izango du 2015eko urtarrilaren 1etik hasita.

8.- ALKATEAREN ESKUMENEN ESKUORDETZE GENERIKOA KIROLAREN EREMUARI DAGOKIONEZ. (2014SKOR0001)

Idazkariak 2014ko abenduaren 12ko ondoko ebazpena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

Udal Korporazioaren udal jarduera ahalik eta eraginkorrena izateko asmoz, Alkatezaren honen iritziz beharrezkoa da izaera orokorreko eskuduntzak Tokiko Gobernu Batzordeko kideen esku uztea. Horrela egin zen, hain zuzen ere, Udal Korporazioa eratu bezain pronto, 2011ko uztailaren 7an emandako ebazpenaren bitartez.

Orain, baina, AUKEA erakunde autonomoa desegitearen ondorioz, 2015eko urtarrilaren 1eko data duena hain zuzen, Kirolaren eremua beste udal sail baten bidez kudeatuko denez eta ez erakunde autonomo baten bidez, premiazkoa gertatzen da ere arlo honi dagokion 'eskumenen eskuordetze generikoa' egitea.

Hori dela eta, ikusirik Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.3 eta 23.4 artikuluetan xedaturikoa, Tokiko Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen (LBRL), Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartu zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 43 artikuluan aurreikusitakoa eta Udaleko Erregelamendu Organikoaren 26 artikuluan, eta bat datorren gainerako legerian xedatutakoa.

Ikusirik, lehenago aipatutako legeriaren arabera, Alkatezaren honek bere eskuduntzak eskuordetu ditzakeela, beti ere kasu hauetan izan ezik: LRBRLko 21.3 artikulua aurreikusitako kasuetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren

26ko 30/1992 Legeko 13. artikulua jasotakoetan, izan ere, horietan erregulatzen dira eskuordetu ezin diren eskuduntzak.

Nik, Alkate-Udalburuak, legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, hauxe

ERABAKI DUT:

LEHENENGO: Eskuordetze generiko berri bat egitea jarraian zehazten den gobernu eremuan edo gaitan eta hemen aipatzen den zinegotziaren alde:

KIROLAK: **Joseba Erramun Askasibar Zendoia**, Tokiko Gobernu Batzarreko
..... kidea eta Kirola Batzorde Informatzaileko Lehendakaria (beti ere, udalbatzak Kirolak Batzorde Informatzailea sortzea onartuz gero).

BIGARRENA: Eskuordetza orokor honek eskurantzak hauek barne hartuko ditu, Kirolaren jardura eremuan:

- a) Alkatea eta Udala ordezkatzeko, alkatea ez dagoenean, bere ordezkari eremuan.
- b) Eskuordetutako udal jardueraren eremuan barne hartutako zerbitzuak eta obrak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- c) Udalbatzarraren eta Tokiko Gobernu Batzarraren gai zerrendan gaiak sartzeko proposatzea.
- d) Proposatzea alkateari edo Tokiko Gobernu Batzarrari bere ordezkari eremuarekin lotutako akordioak hartzeko.
- e) Batzorde informatzailearen txostena eskatzea, Udalbatzarraren eskumena izan gabe ere, haren diktamena edo iritzia beharrezkoa dela pentsatzen duenean.
- f) Batzordearentzat gai interesgarriak izan eta organo eskudunek erabakitzen dituztenean, horien berri ematea batzordeari.
- g) Ordezkaritza bidez onartutako erabakien berri ematea batzordeari aldiro.
- h) Ordenantzak, Erregelamenduak eta udal akordioak betearaztea, bere ordezkari eremuari dagokionez.
- i) Bilerak eta harremanak izatea gainerako batzordeburuekin eta zinegotzi ordezkariekin, elkarrekin koordinaturik egoteko eta elkarren berri izateko.
- j) 6.000 €tik gorakoak ez diren kontratuak adjudikatzea.

- k) Zerbitzuetako obra proiektuak onartzea, zinegotzi ordezkaria eskuduna denean kontratatzeko, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera.
- l) Zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuak onartzea, bere eremuari atxikitakoak direnean eta betiere 6.000 € baino gutxiago denean.

HIRUGARRENA: Emandako eskuordetze generiko honi dagokienez, ahalmen hauek mantenduko ditu Alkateak:

- a) Eskuordetu den eskuduntzaren kudeaketaren informazio zehatza jasotzekoa eta eskuordetze horren arabera sortu diren egintzena ere bai.
- b) Garrantziko erabakiak hartu baino lehen horien berri jasotzekoa.

LAUGARRENA.- Eskuordetze generiko honek izaera mugagabea izango du eta iraungo du hori ezeztatu arte, Alkateak bere agintaldia amaitu arte edo izendatutakoak karguari berariaz uko egin arte.

Eskuordetze generiko hau nahi duenean aldatu eta ezeztatu ahal izango du Alkateak.

BOSGARRENA.- Eskuordetze generiko honen artean dago erabakitzeke ahalmena, beste batzuei eragiten dizkien administrazio egintzen bidez.

Delegazio honetako gaiei buruz Zinegotzi Ordezkariak hartutako administrazio erabakien testuan, berariaz jaso behar da gorabehera hori eta eskuordetu ez diren gaietan eskumena ematen duen organoak emandako erabakien balio bera izango dute. Erabaki horiek baliozkoak izateko, Zinegotzi Ordezkarien Erabakien Liburuan jaso beharko dira.

SEIGARRENA.- Alkateari egokituko zaio Zinegotzi Ordezkarien jardunaren koordinazioa eta haien arteko eskumen gatazkak erabakitzea.

ZAZPIGARRENA.- Etorri ezean, gaixorik egonez gero edo beste edozein eragozpen izanez gero Zinegotzi Ordezkariak, Alkateak beregain hartuko ditu, zuzenean eta besterik gabe, eskuordetutako eskumenak, jatorriko eskumenaren titularra baita, eta ondorio horietarako ulertuko da goragokoak eskumena bereganatzeko ahala erabili duela, Dekretu honetan oinarriturik, zentzu horretan berariazko erabaki berriaren premiarik gabe.

ZORTZIGARRENA.- Ordezkaritza honen terminoetan eta mugetan bete beharko dira eskuordetutako eskuduntzak, eta titularrak ezingo ditu eskuordetu beste organo edo zinegotzi baten alde.

BEDERATZIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea zinegotzi afektatuari, onartu dezan, eta ulertuko da eskumen hori onartu duela, baldin eta hurrengo hiru egunetan ezer adierazten ez badu haren aurka.

HAMARGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udaltzarrari, egiten duen lehenengo bilkuran, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Udaletxeko Ediktuen Taulan jartzea.

HAMAIKAGARRENA.- Dekretu hau Alkatetzako Erabakien eta Dekretuen Liburuan transkribatuko da eta 2015eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

9.- DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN ESKU LAGATZEA HARRERA PROTOKOLOA DISEINATU ETA MARTXAN JARTZEKO LANA. (2014GGIZ0043)

Udal Plenoak, aho batez, Gizarte Ongizateko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Euskal Herrian, orokorrean, eta Gipuzkoan, bereziki, aldaketa sakonak gertatu dira azken hamarkadetan. Horien arrazoiak, nagusiki, bi izan dira: batetik, egitura sozioekonomiko eta politiko propioek eraldaketa handia eta azkarra izan dutela, baita gure inguruneak eta, oro har, mundu osoak ere. Eta bestetik, beste herri eta estatu batzuetako eta jatorri geografiko eta kultural diferenteko pertsona eta kolektibo ugari iritsi direla gure artera eta modu diferentean integratu direla.

Beraz, Euskal Herrian eta Gipuzkoan bizi diren identitate eta jatorri soziokultural ezberdinen arteko bizikidetzaren dinamikoa eta elkarreragin konplexua oso handia izan da eta izaten jarraitzen du. Bizikidetzaren hori, beraz, gizarte, ekonomia, politika eta kultura alorreko egitura guztietan gertatzen da. Elkarbizitza hori modu positiboan eta aberasgarrian bideratzeko, aniztasunak leku estrategiko bat izan behar du jardueraren publikoaren nahiz herrialde honetako eragile sozial, ekonomiko eta kultural ezberdinen hausnarketan eta kudeaketan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritza Nagusiaren barruan den "Udalanitz Sarea"n, 2014ko irailaren 26an burututako bileran, Gipuzkoako udaletan harrera lantzea adostu zen.

Debagoienean harrera lantzeko beharra azaleratu zen bilera horretan, eskualdeko teknikari baten aldetik, eskaera bat egon zelarik.

Eskaera horren harira, 2014ko urriaren 14an, Arrasateko Udalean, Debagoiena eskualdeko hainbait ordezkariarekin (Oñati, Antzuola, Bergara, Arrasate, Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Elgeta) bilera egin zen, eta bertan parte hartu zuten Migrazioko eta Aniztasuneko zuzendariak eta "Udalanitz Sarea" proiektuko dinamizatzaileak.

Aurrekariak ikusi, eta, urriaren 14an egindako bilera kontutan izanda, Foru Aldundiaren asmoa da Debagoieneko Mankomunitatearen baitan dauden udalekin lan egiten eta elkarlanean hastea, horrela Debagoiena eskualdeko udalerrietan lan dinamikak irekitzeko, aniztasun kultura berri batean oinarrituta, elkarrenganako aitortzan oinarritutako politika publikoak elkarrekin artikulatzea helburutzat hartuta eta Debagoieneko udaletan aniztasun hori kohesiorako elementu estrategiko bilaka dadin erraztea, Udal bakoitzeko biztanle guztiei zuzendutako politika barne-hartzaileak bultzatuz, edozein izanda ere haien jatorria.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Debagoieneko udalekin izandako harremanek agerrarazi dute, norberak bere herrian, eta, beste herriekin elkarlanean, prest daudela, jatorri aniztasunaren inguruan lan

dinamikak aurrera eramateko. Zehazki, harreraren bitartez, migrazioaren, aniztasunaren eta eskualdeko biztanleen kulturen errespetu eta ezagutza alorren kudeaketa bultzatzeko, baita gaiarekin zerikusia duten eragileen arteko koordinazioa sustatzeko. Izan ere, udalen helburua norbere herrietako, eta, eskualdeko biztanleen arteko elkarbizitzan aurrera egitea da.

Hori dela eta, lehenago aipaturiko 2014ko urriaren 14an, Arrasateko Udalean udal ordezkari eta teknikariek egindako bileran, honako konpromisoak hartu ziren: elkarrekin koordinatuz, udal bakoitzak jatorri aniztasuna lantzea eta lehen pausu bezala, harreraren inguruko lanketa bat egitea.

Hori guztia kontutan izanik, eta proiektu honen garrantzia kontuan izanik, Gizarte Zerbitzuen batzorde informatzaileak Udal Plenoari proposatzen dio erabaki hau har dezala:

LEHENENGO.- Debagoieneko Mankomunitatearen esku lagatzea Harrera Protokoloa diseinatu eta martxan jartzeko ekimena (I. eranskina), Debagoieneko udaletan herritarrekin batera egingo dena. Horretarako, Mankomunitateak bi teknikari hautatu eta sei hilabetez lanaldi osorako kontratatuko ditu, horrek dakarren gastua Gipuzkoako Foru Aldundiak Mankomunitatearen alde onartuko duen dirulaguntzarekin finantzatzeko delarik.

BIGARREN.- Erabaki hau Debagoieneko Mankomunitateari jakinaraztea.

10.- 2015EKO ORDENANTZA FISKALEN GAINEKO ALEGAZIOAK ERABAKITZEA ETA HORIEN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2014RBAR0039)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatzarrak, 2014ko urriaren 21ean egindako bilkuran, behin-behineko izaerarekin 2015eko ekitaldirako Ordenantza Fiskalak aldatzea onartu zuen. Espediente hori jende aurrean egon da 30 egun balioduneko aldi batez, interesdunek datorren urterako udaleko zerga-sisteman sartutako aldaketak aztertu ditzaten eta bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Jende aurreko erakustaldi horretan hiru alegazio jaso dugu, hurrenez hurren Garagartzako Ortu Ekologikoen elkarteak, MONDRAGON Automoción S.Coop.ak eta HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkartearen federazioak bidalita. Lehenak ur hornidurako zerbitzuaren tarifaren gaineko eskaera egin du, bigarrenak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan ibilgailu elektrikoetarako hobari portzentajea gehitzeko eskatu du eta, azkenik, HIRUKIDEk zerga onurak eskatu ditu familia ugariantzat, udal zergan.

Eskatutakoaren xehetasunak aztertuta, zehazki, hauxe planteatzen dute:

Garagartzako Ortu Ekologikoen elkarteak ur horniduran kontsumoagatik tarifa gorakorra ez aplikatzeko eskatzen du, izan ere, kontagailu bakar bat izan arren 70 inguru erabiltzaile dute; hortaz,

erabiltzaile bakoitzaren batez besteko kontsumoa ez da 50 m³ baino handiagoa, nahiz eta kontsumo osoa bai iristen den aldietako batean (batez ere uda partean) muga horretara. Alegatzen dute, gainera, ura ortu ekologietan erabiltzen dutela eta zerbitzu hori Udalak eskaintzen diela Arrasateko herritarrei, jarduera hori sustatze aldera.

MONDRAGON Automoción S. Coop. hauxe eskatzen du: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan ibilgailu elektrikoei aplikatu beharreko hobaria gehitzea, une honetan %75ekoa dena, eta eskaera egiteko diote, ingurumen arrazoiez gain, haien iritziz, planteatutako onurarik handiena justifikatuko luketela, izan ere, motor elektrikoen potentzia fiskala zenbatzeko Industria Ministerioak ezarritako legezko metodoak presio fiskalaren igoera “bidegabea” sortzen du ezaugarri horiek dituzten ibilgailuetan.

HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkarten federazioak familia ugarietzat zerga onura hauek aplikatzeko eskatzen du:

- Etxebizitzen katastro balioaren muga handitzea (160.000 euro) familia ugarietara hiri izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobaria aplikatzeko, eta 5 seme-alaba o gehiago duten familien kasuan, muga hori kentzea izango litzateke eskaera, uste baitute familia ugariak penalizatuta daudela zergan, azalera handiagoko etxebizitzak behar dituzte eta.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan %50 eta %75eko hobariak ezartzea, aurrekoaren antzeko arrazoi batengatik, izan ere, gehiago dira familiakideak eta ibilgailu handiagoak eta zilindrada handiagokoak behar dituzte, eta horrek, era berean, potentzia fiskal eta zerga handiagoa dakar.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %90eko hobaria, bizitzeko etxetan espazioa gehitzeko etxebizitzak birgaitzeko, uste baitute kolektiboak askotan egin behar izaten dituela halako obrak.
- Edateko uraren hornidura; kontsumoan penalizazioa (tarifa gorakorra) aplikatzeko eskatzen dute, ez etxebizitzako, baizik pertsonaren kontsumoko, izan ere, oraingo sistemak ez du kontuan hartzen etxean bizi diren pertsonen kopurua, eta haien iritziz erabat diskriminatzailea da familia ugarietzat.
- AUKEAren tasak: Familia ugariaren abonua merkeago bat ezartzea, eta %25 eta %50eko hobari bat ezartzea kategoriatan orokor eta bereziko familia ugarietzat, hurrenez hurren, eskaintako kirol jardueretan (igeriketa, ikastaroak, eta abar).
- Udal eskolen tasak: Familia ugarietzako deskontuak aplikatzea Euskaltegian eta Musika eskolan, uste baitugu herritar guztien eskura egon beharreko zerbitzuak direla.

Bestalde, Udalak, ofizioz, doikuntza bat egitea proposatzen du, ez murrizteko, baizik eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan hobari bat eskatzeko epea handitzeko, uste baitu Ordenantzan orain jasota dagoen epea oso murrizturik dago eta agiria frogatzeko zailtasuna izan ditzakete bolumen jakin bateko auzo komunitateek. Planteatutako kasua hauxe da:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %50eko hobaria aplikatzean babestutako birgaitze obrak egiteko, gaur egun eskaera aurkezteko gehienezko epea da hiru hilekoa, Eusko Jaurlaritzak egindako obra ziurtagiriaren egunetik kontatzen hasita. Egiaztatu dugu epe hori laburregia izan daitekeela kasu batzuetarako; hortaz, 12 hilera handitzea proposatu du, Eusko Jaurlaritzak birgaitze babestuko ziurtagiria ematen duenetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako alegazioei eta aldaketa proposamenei buruz, horien izaera kontuan izanik, egokia da banan bana aztertzea eskaerak.

Hortaz,

A- Garagartzako Ortu Ekologikoen elkarteak aurkeztutako alegazioak ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK Garagartzako Ortu Ekologikoen ur horniduran tarifa gorakorra ez aplikatzeko eskaera justifikatua izan daitekeela finkatutako destinoaren arabera, ez dugu ahaztu behar Ingurumen sailak jarduera hori dinamizatzeko, Udalak berak sustatzen duela udal izaerako ortuen funtzionamendu arrunterako erabilera. Gainera, nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan egiten den antzekoa da erabilera, eta lehendik salbuespen horixe dute.

KONTUAN IZANIK Ogasun Batzordea alde dagoela Garagartzako ortu ekologikoei ere erregulazio espezifiko hori aplikatzeko, atal berri bat sartzea proposatzen du, 17.a, “Ura hornitzeko zerbitzua”ren tasa kudeatzeko arauetan.

“17.- Garagartzako ortu ekologikoei ez zaie aplikatuko kontsumoaren araberako tarifa aldagarri gorakorra, baizik lehen kontsumo zatiari dagokion prezioan kontsumitutako metro kubiko guztiak fakturatuko dira.

B - MONDRAGON Automoción S. Coop. enpresak aurkeztutako alegazioak ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK 2014an ibilgailu elektrikoek zerga kuotaren %75eko hobaria izan dutela. Hala ere, gasolinazko motorren eta motor elektrikoek arteko potentzia fiskalaren ekibalentzia ez denez proportzioskoa, azken horiek penalizaturik daude, automobil txiki konbentzionalen antzeko potentzia batekin zilindrada eta potentzia handiko gasolinazko ibilgailuen talde berean sartzen baitira. Horregatik, ibilgailu elektrikoek hobaria zergaren %90era arteko hobarira gehitzea proposatu du. Horren ondorioz, hobaria honela geratuko da idatzita:

1.- Zerga kuotaren %90eko hobari bat izango dute lantegitik bertatik homologaturik datozen motor elektriko ibilgailuek.

C- HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkarten federazioak aurkeztutako alegazioak ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK Udal honen iritziz egokiagoa dirudiela familia ugarietzako laguntzak erregulatzea udalaz gaindiko eremu batetik, izan ere, udal zergan zerga abantailak ezartzeak ez du konpontzen kolektibo horretan gertatu daitekeen problematika, eta, hala ere, bi sortu litzake ezberdintasunak udalerrri bateko zergadunen artean, eta ezberdintasunak ere beste udalerrri batzuekiko familien artean. Horretarako, Udalak ulertzen du beste erregulazio esparru bat izan beharko litzatekeela, onartu beharreko laguntzei eta onura fiskalei buruz, izaera orokorragoa duena, hartarako egokiagoak diren zergetan (nagusia, PFEZ).

KONTUAN IZANIK gaur arte Udalak beti ulertu duela familia ugarietzako laguntzak edo zerga onurak eman beharreko zerga tratamendua zehazteko orduan kontuan hartu beharreko beste elementu ezinbesteko bat izan behar duela familia bakoitzaren gaitasun ekonomikoak, izan ere, hala izan ezean, gertatu daiteke zerga neurrien “justizia soziala” zalantzan jartzea.

KONTUAN IZANIK premisa edo alde zuzeneko balorazio horietatik abiatuta, Arrasaten hobariak aplikatzen ditugula familia ugarietzat, batzuetan zuzenean, esaterako OHZren kasuan, katastro balio jakin baten mugarekin eta diru-sarrera gordinen muga batzuk izanik, edo beste zerga figura batzuetan izaera orokorrekarekin lortzeko aukeraren bidez, nahiz eta ez izan espezifikokoak familia ugarietzat, bai dute zerikusia eta bai onartzen dute eskatutakoaren antzeko emaitza bat (EIOZ, Euskaltegia, Aukea, eta abar). Baina beste kasu batzuetan, esaterako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarenean, Udalak ez du arau ahalmenik familia ugarietzako hobariak edo salbuespenak ezartzeko.

KONTUAN IZANIK, azaldu den bezala, Arrasateko Udalak hobari bat duela onartuta familia ugarietzat ondasun higiezinaren gaineko zergan, nahiz eta mugaturik dagoen katastro balioari buruz, eta familien diru-sarrerak finkatutako mugen azpitik daudela egiaztatu behar direla. Aitzitik, eta ibilgailuen oraingo merkatuaren ezaugarriek aholkatzen ez badute ere familiakideen kopuruan oinarritutako diskriminazio bat, une honetan, ezin du aplikatu ezein hobaririk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagokionez, ez baitu Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu behar duten zergaren Foru Arauaren baimenik.

KONTUAN IZANIK Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari dagokionez, albora utzita balizko zailtasun teknikoak, lagundu daitekeen jarduna zehazte aldera, eta nahiz eta ez izan aurreikusita ezein hobaririk familia ugarietzat, bai daude ezarrita beste hobari batzuk, izaera orokorrekoak izan arren, lasai asko aplikatu dakizkieke HIRUKIDEk planteatzen dituen obrei (kide kopurua handitzearen ondorioz etxebizitzak birgaitzeko obrak), izan ere, babestutako birgaitze obrak egiteko %50eko hobari bat dago, planteatutako hobari eskaerari lasai asko lotu dakizkionak.

KONTUAN IZANIK edateko ur horniduraren tasan, erreferentzia elementu moduan biztanleen erroldaren fidagarritasunetik/aldagarritasunetik, tarifa gorakorra etxearen kide kopuruaren arabera aplikatzeak ekarri dezakeen konplexutasun teknikoa eta kudeaketa konplexutasuna dela eta, bere garaian tarifa arruntean sartutako kontsumoa gehitu zen, 50 metro kubiko arte hiruhilekoan. Lehenago, muga hori 30 m³-an zegoen, eta hori izan zen familia ugariak ez penalizatzeko; horregatik, 50 m³-ra jaso zen.

KONTUAN IZANIK, azkenik, AUKEA eta Euskaltegiko tasei dagokienez, zerbitzu bietan, familia ugariarentzat tarifa berezirik ez badago ere, modu batean edo bestean, dauden abantailak aplikatu dakizkien horiei. AUKEAren kasuan familia abonua bat dago, non-eta sartuta dauden kide guztiak; hortaz, familia unitatea osatzen duten kide kopurua handitzeak ez du esan nahi gehitzen denik ordaindu beharreko prezioa erabiltzeagatik edo, beste modu batean esanda, zenbat eta kide gehiago izan familiak, orduan eta handiagoa da lortzen duen hobaria. Euskaltegian, berriz, deskontuak daude ikasleentzat eta langabeentzat, bai eta beka sistema bat ere, asistentzia eta aprobetxamenduari buruzko baldintzak bete izana kreditatu ondoren, familia unitatearen diru baliabideak aipatuz eta kide kopurua kontuan izanik, matrikularen %100 arte diru-laguntzak lortzeko aukera ematen duena. Musika eskolari dagokionez, nahiz eta hori zati batean udal laguntzez finantzatzen den, zerbitzu pribatu bat da eta berak hartzen ditu erabakiak eta hori Udalak ez du ahalmenik erabakitzeke.

Azaldutako guztiarengatik, Ogasun Batzordeak proposatzen du ez onartzea HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkarten federazioak aurkeztutako alegazioak, uste baitu, praktikan, eskatutako onuraren batzuk ezarrita daudela dagoeneko (nahiz eta lortzeko bidea edo erregulatzeko bidea ezberdina izan) eta, beste kasu batzuetan, horiek ez dira bideragarriak, edo ahalbidetzen duen lege araurik ez dagoelako edo Udalaren eskumena ez delako.

D- Udalak ofizios proposatu duen doikuntza ikusirik, eta

KONTUAN IZANIK babestutako birgaitze obrak egiteko eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan hobarian doikuntza bat proposatzen dela. Gaur egun, hobari honen eskaera epea da hiru hilekoa, Eusko Jaurlaritzak egindako obra ziurtagiriaren egunetik kontatzen hasita. Egiaztatu dugu epe hori laburregia izan daitekeela kasu batzuetarako; hortaz, 12 hilera handitzea proposatu dugu, Eusko Jaurlaritzak babestutako birgaitze ziurtagiria ematen duenetik kontatzen hasita. Honela geratu da idatzita dagokigun hobaria:

Babestutako birgaitze obrak %50eko hobaria izango dute kuotan, betiere igogailu berriak jartzeko ez bada eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza (mailegua eta/edo diru-laguntza) ematen badu. Eskaera epea URTEBETEKOA izango da, Eusko Jaurlaritzak egindako obra ziurtagiriaren egunetik kontatzen hasita.

Azaldutako guztiarengatik, Ogasun Batzordeak akordio hau hartzea proposatu dio Udalbatzarrari:

- 1.- Ez onartzea **HIRUKIDE Euskadiko Familia Ugarien elkarten federazioak** aurkeztutako alegazioak.
- 2.- Garagartzako Ortu Ekologikoen elkarteak egindako eskaera onartzea, edateko uraren hornidura kudeatzeko arauetan erregulazio hau ezarrita:

“17.- Garagartzako ortu ekologikoei ez zaie aplikatuko kontsumoaren araberako tarifa aldagarri gorakorra, baizik lehen kontsumo zatiari dagokion prezioan kontsumitutako metro kubiko guztiak fakturatuko dira.

3.- **MONDRAGON Automoción S. Coop.** enpresak egindako eskaera onartzea, eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren zerga kuotan honbarria handitzea; honela geratu da idatzita:1.-Zerga kuotaren %90eko hobari bat izango dute lantegitik bertatik homologaturik datozen motor elektrikoko ibilgailuek.

4.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan babestutako birgaitze obrak egiteko hobariari buruzko aldaketa bat sartzea, eta honela geratu da idatzita:

2) Babestutako birgaitze obrek %50eko hobaria izango dute kuotan, betiere igogailu berriak jartzeko ez bada eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza (mailegua eta/edo diru-laguntza) ematen badu. Eskaera epea URTEBETEKOA izango da, Eusko Jaurlaritzak egindako obra zaurtagiriaren egunetik kontatzen hasita.

5.- Behin betiko onartzea 2015erako Ordenantza Fiskalen aldaketa, 2014ko urriaren 21ean egindako bilkuran hartutako akordioaren terminoetan, akordio honetan jasotako aldaketak sartu eta gero.

6.- Akordio hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

11.- 2015. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA. (2014DPRE0001)

Idazkariak Ogasun Batzordearen ondoko diktamena irakurtzen du:

Alkateak 2015eko aurrekontuen proiektua aurkeztu du, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailetakoei egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali dute, izapidetzeko.

2015eko ekitaldiko aurrekontu orokorren proiektuak, udalbatzarrak onartu dezan jarri dena, **HOGEITA HAMALAU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BOST MILA ETA SEI EHUN ETA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (34.945.603,78€)** egiten du, eta aurrekontu horretan sartuta daude Udalaren beraren aurrekontua, **HOGEITA HAMAIIKA MILIOI ETA BOSTEHUN ETA HOGEITA BOST MILA ETA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMOekin (31.525.278,80€)** eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontua (AUKEA erakunde autonomoa 2014ko abenduaren 31ko datarekin desegingo da, eta udal egituran integratu), **HIRU MILIOI ETA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOekin (3.537.044,71€)**

Alkatetzat udal gobernuan sartuta ez dauden udal talde politikoei aurrekontuari buruz izandako negoziazio prozesuan EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen ordezkariak adierazi dute bere kontrako iritzia, jarrera hori zenbait kontusail eta ekimenekin ados ez daudelako. Hori dela eta, Ogasun Batzordean proiektuari osoko emendakina aurkezten diote.

Osoko emendakina bozkatuta, ez da onartu Batzordearen Lehendakariaren kalitatezko botoarekin, bi bider boto berdinketa eman delako, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeko ordezkariak alde eta BILDU eta ARALAR udal taldeko ordezkariak kontra bozkatu baitute.

Osoko emendakina onartu ez denez, aurrekontu proiektua bozkatu da, aurrekontuko kontusailak eta exekuzio arauak barne. Proiektuari dagokionez, Ogasun Batzordeak, Batzordearen Lehendakariaren kalitatezko botoarekin, bozketan bi berdinketa izan eta gero, BILDU eta ARALAR udal taldeko ordezkarien aldeko botuekin eta EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeko ordezkarien kontrako botoekin, proiektuari aldeko txostena aurkezten dio Udalbatzarrari eta proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2015eko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren aurrekontua, aurrekontu bakoitza betetzeko arauekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik jaso ezean.

I.AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Azaltzera noa 2015eko aurrekontuaren lerro nagusiak

Hona hemen 2015eko aurrekontua, legealdiko azkena. Finantza administrazioaren tresna moduan, aurrekontua da baliabideen plangintza egiteko oinarria; erabilgarri dauden baliabideen arabera, urte osoan egin asmo ditudun jarduerak zehazteko tresna.

Ekitaldi honetako berritasuna da AUKEA Udalaren egituraren sartzeko dela, orain arte erakunde autonomoa izan da, eta orain Udalaren egiturakoa izango da.

Kudeatzeko era aldatzearen helburuak bi dira:

- 1) kostuak gutxitzea eta
- 2) kirol erakundearen zerbitzuan kalitatea hobetzea.

Legealdiko azken aldi hau zuzenean eta etengabe eragiten diguten gertakari ekonomikoak jositako egonda.

Diru publikoak banketxeak erreskatatu izanak eta zor publikoak (banketxeen esku dagoena) beste edozein gasturen gainetik lehentasuna izan dezan konstituzioa aldatu izanak, Udaletan eragin negatiboa eta zuzenekoa izan dute.

Lege bat onartu dute gerora begira zor hori ordainduko dutela bermatzeko, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eusteko. Horren ondorioz, maniobra marjenik gabe Udalok autonomia galdu dugu eta Madrilen erabakiaren menpe geratu gara.

Ez gaude prest gure sistema publikoan eskumen gehiago gutxitu diezaguten. Eta ez gaude prest banketxeek, espekulatuzaileek eta multinazionalak sortu duten krisiaren zama langileei egokitu dakien.

Ez ditugu ikusi gura gure udalak baliabiderik gabe. Baina horren guztiaren konponbidea ez da herritarrei zerga karga handiago bat sortzea, oreka bat gordetzea baizik.

Eta behartuta gaude oreka hori gordetzera: diru-sarrerak lortzeko garaian, gehien daukatenek ahalegina egin beharko dute gutxien daukatenen alde. Baliabideen banatzea errealitate bihurtu behar da. Behartuta gaude lan egitera, baliabide gutxiago duten herritarrek bizi baldintza duinak izan ditzaten.

Azpimarratzea garrantzitsua da oinarritzko lau helburu finkatuko ditugula: inbertsioa, gizarte prestazioak, zorpetzearen murrizketa garrantzitsua eta Udal tasak izozteko ahalegina. Gure esku dagoen guztia egingo dugu posizio egonkorra eta sendoa gordetzeko, nahiz eta herriko jarduera garatzeko dugun esparru ekonomikoak agerian uzten duen ziurgabetasuna herritarren eskakizunei eta beharrei erantzuteko.

Zergak eta tasak modu orokorrean ez igotzeko erabakiak garbi asko erakusten du, arrasatearrekiko zer nolakoa den Udal honen laguntza eta konpromisoa.

Fagor Etxetresnak lantegiaren porrotak herriko ekonomiari emandako astindutik urte betera, Cata enpresak aktiboak erosi ondoren, eta zuhurtziaz jokatu, itxaropen berriak ditugu familia askoren egoera zailari aurre egiteko.

Langabezian dauzkagu 1.694 herritar, eta beraietako bakoitza pairatzen ari den egoera da bereziki arduratzen gaituena.

Fagor itxi izanak ekarri zuen kolpe latza arintze aldera, 2014ko aurrekontuan Enplegu plan bat jarri genuen abian, bai Udalak eta baita herriko enpresek ere, iraupen luzeko langabeen kontratazioa sustatzeko. Unibertsitatearekin batera Lanbai enplegu azoka eta tituludun berrientzako beka lerro bat ere antolatu genuen, SAIOLANen laguntzarekin.

Halaber, Enplegu plan horrek 2015eko aurrekontuan jarraipena du.

Azpimarratu behar dugu, datu positibo moduan, espero dugula Udal Finantzaketako Foru Funtsak, (udalaren baliabide nagusia) 2014 eta 2015 tartean, Gipuzkoan, bere diru-bilketa 14,8 milloi euro gehitzea.

Horren eraginez, 2015eko aurrekontuan Arrasaten 443.000 euro gehiago izango ditugu.

35 urtean itxaroten egonda gero, azkenean Udalaren Lege bat izango dugu; edozelan ere, akatsekin jaio da, izan ere, legea egiterakoan dozenaka udalek ez dugu parte hartu.

Legeak argitasun falta du udalei behar beste finantzaketa bermatzeko orduan, hau da, arauak berak aitortzen dizkien eskumenak erabiltzeko behar beste finantzaketa.

Gure lehentasuna pertsonak dira eta gizarte egoera ahulenean daudenen beharrak (nagusienak, gazteenak, etorkinenak, ezintasuna duten pertsonak...) asebetetzen jarraituko dugu, aukera berdintasunari bide ematen, aniztasunaren alde lan egiten, integrazioa eta kultura sustatzen. Azken batean, bizikidetzaren egonkorragoa eta duinagoa lantzen.

Horrela, gutxien daukatenen beharrak asebetetze aldera, gizarte izaerako laguntzak eta programak mantendu ditugu, eta, horretarako, legegaldiaren hasieratik hartu dugun konpromisoarekin jarraituko dugu, behar izanez gero, horiek gehitzeko konpromisoarekin.

Inbertsioen atalean, Udal azoka biziberritzea azpimarratu behar dugu, biziberritze estrategikoa da hau, 2015-2016 urteetan egingo duguna. Bizi kalitatea eta ongizatea sustatuko dituen azoka gura dugu, elikadura osasungarria eta lehen sektorea, bidezko merkataritza, bigarren eskuko produktuak, artisautza, kultura ekitaldiak bultzatuko dituen, aisialdirako eta dibertimendurako aukerabideak eskainiko dituen.

Ekitaldi honetan ere San Josepe auzoa urbanizatzeko lehen azpifasearekin eta Udala auzoa urbanizatzeko obrekin jarraituko dugu. Gainera, Zarugalde osteko mendi-hegalari eusteko obrekin jarraituko dugu, eta udal artxibo berria jarriko dugun abian.

Makatzena auzoko bizilagunek egindako birgaitze lanak amaitutakoan, Udalak bere gain hartuko du auzoaren atzealdeko errepidea zolatzeko lana, eta Hondarribia kalea eta Makatzena auzoa lotuko duen igogailuaren bideragarritasunerako gestioekin jarraituko du.

Meatzerreka auzoan Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen errege bidearen pasabidea errekuperatuko dugu, Ugaldeazpi baserriaren ondoan, oinez edo bizikletan ibilbide historiko batez gozatzeko. Leku horretan, eta ura eta saneamendua hornitzeari dagokionez, auzoa eta herrigunea lotzen dituen zatia egingo dugu.

Ahaleginak egiten ari gara Arrasaten euskararen ikaskuntza eta euskararen erabilera sustatzeko. Funtsezkoa da gure hizkuntza politikan baliabideak eskaintzea herritarrek euskara ikasi dezaten. Helburu horri ganoraz heldzen jarraitzeko, leku egokiak behar ditugu eta 2015ean Udal Euskaltegi berria egokitzeko proiektuari ekingo diogu.

Mugikortasun planari dagokionez eta TAO Unibertsitatearen inguruan ezarri ostean, Ferixalekuan jarri dugu abian sistema hori, froga moduan. 2015ean apurka-apurka udalerriko beste leku batzuetara zabalduko dugu .

Takolo- Goiru zeharbidearen proiektuko lanak abiatu ditugu eta 2015ean Foruen plazari eta Udala plazari dagokion zatia egingo dugu.

Zonalde hori oinezkoentzat jartzea planteatzen dugu, ibilgailuentzat sarbidea arautuz.

Halaber, Etxaluze eta Musakola lotuko dituen bidegorriaren proiektua jarri dugu abian, udalerrian bizikletentzako bide bat ezartzeko.

Garabiak, 2015ean, zerbitzuak udal langileez emango ditu.

Lokal bat egokituko dugu Zalduspen, bide publikotik udal garabiak eramandako ibilgailuak gordetzeko.

Kulturaren eremuan gure apustua argia da, Erlojuaren Eraikina kultura mintegi bihurtu gura dugu, herriko talde eta elkarte gehienek egoitza berean jardun dezaten.

Gaur egun eraikin horretan hauek guztiak daude: Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz dantza taldeak, Doke antzerki taldea, Trikitixa eskola, txistularien elkarteak, gaiteroak, txalapartariak, Bertso Eskola, Goikobalu... Eta 2015ean errealitate bihurtuko da eraikinaren proiektu orokorra.

Epe ertain-luzerako helburua da Arrasate Musikalek ere eraikin horretan behin betiko egoitza izatea.

Hondakinak gaika biltzeko sistema berria 2015eko urtarrilean hasiko da martxan. Sistema berri hau ezarri dugu Hondakinen Mahaian lortutako akordioan finkatutako helburuak lortzeko; helburua da birziklatze tasarik handiena lortzea.

Hau da, gutxienez gaikako bilketaren %70a lortzea.

Ezberdinen arteko akordioa lortzeko, parte hartzearen kultura gureganatu dugu: Proiektuak onartu ditugu, Plan Orokorra, Andradetan, TAO Unibertsitate aldean, Hondakinen Mahaia, Bizikletaren Mahaia, jaixak... moduko ekimenak.

Parte hartze prozesuena kultura politikoaren kontzeptu bat da, bidea zabaltzen duena herritarren parte hartzea oinarri duen ordezkartza demokraziantz.

Kultura honek eskatzen du aldaketa bat bai jarrera politikoetan, baita herritarren jarreran ere.

Guk konpromisoa hartua dugu parte hartze prozesu horiek biziki bultzatzen jarraitzeko.

Hauek dira aurrekontuaren ildo nagusiak eta bueno aurrekontuari buruz interbentzioak

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Komentau duzuen bezala guk komisioan aurkako botoa eman genuen eta han Juan Karlosek aurkeztu zuen moduan gaur goiaz berriz be esatera zergatik botatzen dugun guk aurtan aurrekontu hauen aurka.

Egiten dugun balantzea 2014koa ze azkenean 2014ko aurrekontuak onartu egin genituen gure onarpenarekin onartu ziren baina bueno ikusten dituguna izanda hainbat gai ez direla bete ez? Alde batetik onartu zen guk proposatu bezala emendakin baten proposatu genuen bezala kaleak garbitzeko

ordenantza bat eta garbiketa ordenantza horrek ez du behintzat urte honetan argia ikusi eta beste alde batetik, hondakinei dagokienez bueno edukiontzi soterratuaren konponketa berriz ere martxan ipintzea ere gure emendakin bat izan zen hori ere ez da bete, beraz, alde batetik daukagu guri onartu zitzaizkigun hainbat gai ez direla bete.

Beste alde batetik, iruditzen zaigu 2015eko aurrekontuak ez dutela Arrasatek duen gaurko egoerari erantzuna ematen esaten duzue zergak eta tasak ez dituzuela igo eta egia da, gure alderdia edo gure talde municipala hiru urtez ibili dela eskatzen tasak eta zergak ez igotzea Arrasaten zeukan egoera ikusita eta zuek ekartzen duzue erabaki hau aurten ba justu legislatura bukatu behar denean. Orduan, gu hiru urtez eskatzen ibili garena, egia da, aurten behintzat positibotzat hartzen dugula ze bueno azkenean bada ere behintzat hori onartu duzue baina zergatik ikusten dugu ez duela erantzun bat ematen arrasateko egoerari, alde batetik, enplegua ez, bueno dotazioa txikitu egin da 108.000 €tara eta pentsatzen dugu eman diezuen partida honek ez daukala behar beste garrantzia, beste alde batetik esaten duzue baita prestazio sozialak zuentzako ezinbestekoak diezela baina egia da, emergentzia sozialetako laguntza era 100.000 €tan jaitsi egin duzuela.

Inbertsioei dagokienez eta Alkateak orain azpimarratu duen azoka proiektua. Guk publikoki esan dugu azoka proiektuarekin ados ez gaudela, azkenean 2 milio eurotako inbertsioa ba inbertsio nahiko inbertsioa da eta iruditzen zaigu gaurko ubikazioa ez dugu ikusten onura pentsatzen dugu hori dela merkatuari txarto gehiena egiten dion aspektutariko bat eta proiektua beste toki batzuetan aztertu ez nahi izatea ere bueno azkenean proiektu hau ez dugu ikusten.

Beste alde batetik Arrasateko peatonalizaziori dagokionez Arrasateko pasealekuan honen aurrekontua ere 1.3 milio € izango dira eta guk ez dugu esaten peatonalizazioa ez dugula ikusten. Gu ez gaude peatonalizazioaren aurka baina bai ikusten dugu horrek ekarriko dituela trafiko arazo handiak eta ez duguna ikusten egin denik estudioren bat ea horrek zelan afektatuko duen eta zer egingo den trafiko horrekin eta bueno ez ditugu ikusten aparte partidak aparkalekuei dagokionez, ez dugu ezta ere ikusi aplikatu den TAO sistema, adibidez, herri zentrorra behintzat partidarik ez dugu ikusi.

Laubideko parkignak oraindik ere jarraitzen du zabaldu gabe eta beste alde batetik eta esan beharra daukat kulturako komisoan iruditu zitzaidala oso ideia ona entzun nuenean aztertzen ari zinatela umeentzako parkeak estaltzeko zeozer baina egia da aurrekontuan ez dugula ikusi horretarako partidarik eta guretzako hori herriarentzako oso garrantzitsua da eta bueno hor ere ez dugu ikusten, aldiz ulergaitza iruditzen zaigu, adibidez, gastu partida bat ezartzea berri bat auzo konpostarentzat.

Orduan, guk ikusten dugu guretzat edo gure taldearentzat prioritarioak diren proiektuak ba zuentzako ez direla prioritarioak eta aldiz, zuek proposatzen dituzuen gauzak ba guk ez ditugula ikusten eta bueno ba guzti honegatik gure botoa kontrakoa izango da.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE):

Arratsaldeon, buenas tardes. Bueno nosotros creemos que el presupuesto de 2015 es un presupuesto continuista al anterior. Creemos que Bildu no ha planteado con rigor y seriedad en nuestro municipio políticas de la lucha contra la crisis y a favor del empleo y en ello tenemos un ejemplo que es que ni siquiera el PNV que es el corresponsable al haber apoyado y haber dado un cheque en blanco a los

presupuestos de este año, el año anterior además de que no se han llevado a cabo pues bueno que haya sido un fracaso todas aquellas propuestas de futuro en apoyo del empleo y mermar la crisis que la afección de las crisis en Mondragón que no ha salido adelante.

Por eso creemos que no has hecho suficiente desde el ayuntamiento y creemos que parte de la responsabilidad de ese cheque en blanco la tiene el PNV. Por otro lado, creemos que yo ahora al escuchar la intervención del Alcalde hemos escuchado mucho casi hasta de macroeconomía cuando lo que tenemos es que ir al fondo de la cuestión y es hablar de nuestra economía domestica.

¿Que es lo que tiene que dar el ayuntamiento al ciudadano de a pie no? ¿Que es lo que que hubiese querido escuchar el ciudadano si hubiese venido aquí en el salón de plenos? Pues ha escuchado cuestiones de gestión domestica que son bueno habituales en las que nosotros podemos estar o no a favor o en contra pero no ha escuchado ni una palabra de lo que va a hacer para mermar ese azote de la crisis en ellos ¿que va a hacer el ayuntamiento para mejorar la economía local? ¿ Que va a hacer el ayuntamiento para reactivar el empleo? ¿Que va a hacer el ayuntamiento para generar esa confianza en nuestro ayuntamiento del ciudadano?

Quiero decir ni siquiera ha planteado nada esto el PNV porque sabe que fracaso en el intento al apoyar los presupuestos de este año el año pasado.

Por lo que nosotros creemos que van a volver a ser unos presupuestos continuistas como he dicho antes pero es que además se que ha habido compañeros concejales de este grupo que han planteado bueno algunas propuestas en el presupuesto en el que se les había dicho que no, que no se iban a llevar a cabo también lo planteamos en otros años el presupuesto presentamos incluso enmiendas que tampoco de las que se hicieron caso omiso y viendo como funcionaba el pacto con el PNV que ha quedado en nada en fracaso pues como nos íbamos a plantear desde nuestro grupo político nada en favorecer este presupuesto ¿no?

Bildu dice muchas veces que habla de un cambio de modelo y que iba a llegar en estos tres años ese cambio de modelo en la gestión municipal pero no se ha producido ningún cambio de modelo y tampoco se han atajado los problemas de las personas que la convivencia necesaria que tenían que haber cumplido.

Por eso creemos que son unos presupuestos que reflejan solamente la gestión municipal pero que no reflejan la realidad y la problemática de este municipio tanto en empleo como en el estado de bienestar social de nuestros ciudadanos por eso el grupo socialista votara en contra de estos presupuestos.

JOXE ETXEBARRIA (ARALAR):

Arratsaldeon. Aralarrek aurrekontu hauei baietza emango die baina komentau Madriletik ezartzen zaigun derrigorrezko betebeharrak zorpetzeari dagokionean bai zenbatekoan eta bai epeei dagokionez horrek izugarritzko losa suposatzen duela inbertsioak nola antolatu erabakitzeako orduan.

Guzti horrek baldintzatu gaitu aurrekontu hauek egiteko orduan, horrela aurrekontu hauekin zorpetzea zorpetze mugatua geratuko da, zorpetze arina, datorrenak datozela hurrengo legealdian. Horrez gain,

esan behar da baita ere hainbat proiektu eginak geratzen direla San Josepe auzoari dagokion proiektu osoa, Araba etorbideko proiektu osoa, Takolo Goiruko proiektu osoa datorren urtean 2016ko aurrekontueetan lanean hasi nahi duenak ba proiektu horrekin proiektu berriek ibili daude segituan lanean hasteko moduan eta lehen komentatu dugun lege horrek mugatzen epeetan eta dirutan mugatzen duen eskolan sartzeko aukera izango dugu edo izango da, momentuan dagoenak eta prestamoak eskatzeko orduan aukera horiek aztertu beharko dira.

Eta hor ikusiko da zenbaterainoko babes dagoen aurrekontu edo inbertsio potoloagoak egiteko orduan.

Beste aldetik esan lehen Inaziok aipatu duen moduan, udal euskaltegia egokitzea dagokigula, honek esan nahi du, aztertu behar dela dagoen orain dagoenak zer hutsune daukan, ze betebeharrak zuzendu beharrak eta horren arabera, erabakiak hartuko beharko dira falta dena egiteko.

Eta hemen komentatu da gizarte zerbitzuetan nolabaiteko diru eskasia edo diru gutxi edo jaitsi egin dela, baina hori urtero-urtero zehazten den zerbait dela uste dut eta beharren arabera eguneratzen dena. Beste batzuk nolabait egiten ez dutena ez. Jaurlaritzatik eman beharreko dirulaguntzak oso mugatuak izaten dira eta hor bai ez dagoela inongo gehitzerik ematen dutena ematen dutela bukatzen denean kitto. Hurrengo urterarte.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Eskerrik asko Joxe. Maiderrri pasatu baino lehen hitza gauzatxo bat nahi dut akklaratzeari Mariak esan dau 2014ko aurrekontuaren konpromiso maila ez dugula bete eta nik esaten dut ia 100% bete dugula. Nik baloratu egiten dut oso positiboki lortu genuen akordioa nik uste dut bidea hori dela baina apur bat zehazteko orduan nahi dut komentatzea, adibidez, lurpeko hondakinen edukiontzia gaia hondakinen mahaian aztertzen da, badakizue kontratazioa egiten dela mankomunitatetik eta orain dabizela konpontzen. Orduan gaiarekin bagabitz ez daukagu abandonatuta, bestela informazio gehiago edukiko dau Juan karlos berak nahi baldin duzue akklaratzeari berari galdetu.

Gero esan betetze maila hori adibidez, konpromiso bat hartu genuen Kaskonategin gunean ibilbide luzerako autobus geltokia jartzea hori egin behar da. Umeek eta gurasoak egoteko estaltzeko gunea hartu genuen konpromisoa zan azterketa bat egiteko, gune desberdinena eta hori eginda dago eta badakizue be bai, azokarekin batera gune bat doala be bai horretarako. Orduan momentu honetan ez dugu ikusten prioridadean artean baina ikusiko dugu datorren urtean zehar ze gerakin daukagun eta aztertu dugu gaia baina azterketa eginda dago.

Garbitasunarekin lotuta Juan Karlos badaki lanketa txukun bat egin zen eta hor daukagu udaletik planteamendu zehatz bat baina denon inplikazioa behar da. Hor kultura aldaketa bat behar da oraindik hainbat eragile eta norbanako pareta erabiltzen dute adierazpen askatasun moduan baina bueno gu klaro daukagu hori jorratu egin behar dela bide hori zabaldu egin behar dela eta hor egongo gara hor pausoak emateko.

Eta enpleguarekin lotuta lanketa hori zuekin egin zan eta ildo berri horiek lau ildo beri hoiek eta asmoa daukagu ildo hoiekin aurrera egitea zuekin egin zan eta azkenean gero batzordera eraman zan eta nik uste dut nik behintzat modu oso positiboan baloratzen dut eta pasauko diot hitza Maiderrri.

MAIDER MORRAS (BILDU):

Arratsaldeon. Guk printzipioz orokorrean irizpide batzuk ezta? Ia lau urte igaro dira hemen lanean hasi ginenetik orduan jarri genituen irizpideak gaur egun arte bete izan dira gure ildoak eta premisak eta gure politika izan da abertzalea, ezkertiarra eta beste eredu baten lan egitea, beste eredu bat praktikan jartzeko lan egitea.

Uste dugu ildo hauek bete direla baina oraindik lan egitea dagoela horren gainean era eredu ba Aritzek esan dauenaren harira argi dago aldatu dela, inoiz ez dira partehartze prozesuak egin udal honetan, ez guk egin ditugun bezalakoak eta ez bakarrik herritarrak baizik eta oposizioak ere parte hartu izan dituenak.

Orduan, oso datu inportante bat eman behar dut ahaztu baino lehenago eta da gure konpromisoa izan dala gastua arrunta kontenitzea eta udalak euken zorra jaistea. 2011an udal honek 8 milioitako zorra zeukan eta 2015eko bukaeran edukiko dau 2 milioiko zorra. Horrek esan gura dau ahalegin handia egin dugula kontentzioan eta gure kontuak zaintzen eta konpromiso kredituarekiko eduki ditugn konpromisoak betetzen eta uste dut oso datu garrantzitsua dela, ze era berean mantendu ditugu beti izan ditugun ildoak ezta? Legislatura aurretik, hau da, hauteskunde aurretik eskaini zena herriari bete dugu. Gure premisak izan dira: gizarte zerbitzuak eta hemen ematen diren zerbitzu guztiak. Egixa da zerbitzu guzti hauetatik batzuk eusko jaurlaritzari dagokionak momentu honetan PNVren eskuetan dauzenak ezta? Eta adibidez Mariak komentatzen dau larrialdi laguntzeetan partidak jaitsi egin direla esan beharra dago konpetentzia hau Eusko Jaurlaritzakoa dela eta Eusko Jaurlaritzak ematen dozkula lehenengo eurak nahi duten dotazioa eta horrekin egiten dela ahal dana. Baina oso garrantzitsua da esatea aurten gure udalak 50.000 € jarri izan dituela gizarte laguntza hauetan babesa emateko.

Orduan, uste dugu eta Inaziok esan dauen harira daukagun egoera ekonomikoaren aurrean gizartean ahulezia erakusten dutenei erantzun bat eman behar zaiela bai gazteiei, familie eta bai pertsona nagusiei eta hor inbertsioa hor sartzan dugun horretara bideratzen dugun dirua kopurua oso handia da eta ematen diren zerbitzuak mantendu dira eta areagotu dira. Ez bakarrik 2015eko aurrekontueekiko baizik eta hemen gauzenetik.

Bestalde, oso garrantzitsua da enpleguaren gaia ezta? Ze uste dugu alde batetik gizarte zerbitzuak oso garrantzitsuak direla baina Aritzek esan dauen harira be bai oso garrantzitsua dala daukagun egoeraren aurrean enplegua eta honen ildoak lantzea. PNVekin akordioa lortu zan eta hemen lan asko eginda. Ezin da esan Aritz ez dauela fruturik eman ze uste dugu oso garrantzizkoak izan direla eta arraskatatsuak izan direla eman diren lau ildoak bai bekak eta bai dirulaguntzak enplegu gabe denbora luzean dauzenendako. Orduan, dotazioa gutxitu dala bai baina ez da gutxitu nahi izan dugulako eta gainera hartu da konpromisoa guk dirua jartzeko eta gehitzeko datorren urtera begira ikusten dugunean zelako laguntzak daukagun horren partidari zergatik berriz ere berdinerara gatoz enplegua ez da gure konpetentzia eusko jaurlaritzarena da, hau da, PNV ren eskuetan dago. Guk iaz egin gauen esfortzua aurten 2015erako prest gauz errepikatzeke.

Bestalde, komentatu izan da be bai peatonalizazioaren asuntua peatonalizazioa izan da gai bat serixua eta ganoraz hartu gauena hasieratik 2011tik gaur arte zuzenki erlazonatuta dago TAOrekin edo aparkalekuekin noski eta herritarrak ondo ulertzen dauen moduan hau ezin da egin goizetik gabera eta

izan da plan bat lau urteetan poliki-poliki egiten ari garena eta uste dugu oso arraskatsua izan dela. Alde zaharraren peatonalizazioa lortu izan da fin lan egin gaelako horren inguruan. Ez bazarete gogoratzen hasiera batetik izan zan inkluso polemikoa eta gaur egun normalizatuta dago eta oso arrakatsua izan da. TAOren inplantazioa Munarreko gunean baita eta monetu honetan Ferixalekuan ikusita dauen mugimendua ba ikusten da arraskatsua dela. Gure intentzioa noski dala TAO poliki poliki alde zahar guztira edo erdialde guztira hedatzea.

Komentatu izan da be bai Laubideko parkina ez dala zabaldu, Laubideko parkinak oposizioak ondo dakixen bezala dau kontratu zehatz batetara eta problematika berezi batera lotuta dela enpresaren kiebra egoera momentu honetan baina lortu izan dugu zorionez negoziazio baten negoziazio sutsu baten ondorioz minimo mantentzea Maalako parkina ze hori ixa galtzar egon da baina bueno hori batzordeetan aztertua izan da.

Egia da ez dugula lan eraikitzailek ikusi oposizioaren partetik beste urte batzuetan emendakinak aurkeztu dira eta negoziatuak izan dira eta aztertuak izan dira baina aurten ez ditugu proposamenak jaso. orduan uste dugu lan eskasa egin dela honen harira ezta? Egia da sail bakoitzean aurrekontua ez da abenduko gauza bat aurrekontua eta bere exekuzioa guk behintzat aztertzen dugu x hiletan behin aztertzen dugu exekuzioa zelan dabilen betetzen ari garen konpromisoak ze gauza gastatzen ari diren edo erabiltzen ari garen modu eraginkor baten edo ez. Urtean zehar ez da inolako proposamenik egon batzorde baten bez eta abenduan orain arte be ez ditugu proposamenik jaso, emendakinak izan dira osotasunera inoiz ez bezala eta horrek egia esanda nahiko harritzen gaitu eta harrituta gauz ez delako beste urte batzuetan egin dan lana egin ezta? Ze gure borondatea eta gure helburua izan da akordioetara heltzea eta iaz heldu ginen bezala ez bakarrik enpleguaren gaian baizik eta hondakinen gaian eta beste gai askotan heldu izan garen bezala.

Orduan esaten danean bestalde Aritz kontinuita garelak eske guk egin ditugun aurrekontuak egin ditugu lan batekin lau urteetara begira, inbertsioetara mugatzen baldin bagara, inbertsioak gaur egun ezin dira egin golpe baten izan behar dira urte anitzetako inbertsioak. Orduan iaz inbertsioa egin zan azokan, inbertsioa egin zan Makatzenan, inbertsioa eginda Udala eta San Josepeko asfaltatua eta aurten be bai hor dauz. Orduan hori ez da kontinuita izatea hori da inbertsioa sakabanatzea urteetan zehar eta modu horretan kreditua amortizatzea gastuak kontenitzea eta hori izanda gure lana eta uste dugu lan polita egin gaela horren inguruan. Hori besterik ez.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Motz-motz egingo dut. Lurperatutako edukiontzia dela eta bai egia da Juan Karlosek bere taldeari informazioa ematen diola ba denok egiten dugun bezala komisiotara joaten garen guztiok gero gure taldeari ematen diogu informazioa eta berak emandako informazioaren arabera 57 bueno esan beharra dago partida zela oker ez baldin banago dauzkaten datuak 78.000 partida bat zegoela kontenedore soterrauak konpontzeko eta hortik 4.000 € bakarrik erabili direla eta 57 kontenedoretatik 26 bakarrik mantentzen direla gaur egun. Hombro Apostua edo boluntade politikoa hori konpontzeko hori ez dugu ikusi. Hori hola da.

Bigarrena, parkearen asuntua zuk esan duzu umeak estaltzeko parkeak, umeen parkeak estaltzeko proiektua izan daitekeela baina ez duzuela ikusten prioritarioa ointxe esan duzu zuk eta egia da eta

Kepak badaki nik komisioan beti egon naizela proiektu horren alde ze bai ikusten dut komenigarria dela herrian eta egia eta gainera komisioan nik pentsatzen dut gure taldeak egiten dituzuen proposamenak egokiak ikusten ditugunean hala esaten dugula eta adibidez, hori egokia ikusten genuen eta hala adierazi genuen baina egia da ez dugula ikusi partida bat horretarako eta orduan bai ikusten dugula zuentzako hori prioritariora ez dela.

Garbiketaren ordenantzak ba egia da kultura aldaketa bat beharrezkoa dela baina egia da ez dela lan bat egin ordenantza batzutura iristeko pausoak ez dira eman. Ze egin da bilera bat taldeekin egin zan bat edo bilera baina eske hortik aurrera pauso gehiago ez dakit eman diren.

Eta enpleguaren gaia ba guretzako egia da enpleguaren gaia prioritariora dela lehengo urteko aurrekontuetan ere prioritariora zela eta gu ere oso pozik egon ginela zuekin lortu genuen akordioagatik eta bueno jarri diren medidagatik eta horregatik pentsatzen genuen aurreko aurrekontuek partida hori gutxienez indartu egingo luketeela horregatik ikusi genuen aurten ere gutxitu egiten dela ba bueno ez da aurten ez dugula guk proposamenik egin ze nik uste dut komisioetan guk ikusten ditugunean gauzak gu proposamenak egiten ditugula. Lehengo urtean akordioetara iritsi ginen bai ze aurretik jaso genuen aurrekontua ikusten genuen gure prioritateekin edo sintonia batean bazegoela eta emendakin batzuek eginda ikusten genuen bueno aurrekontua onartzeko modukoa bezala zela baina aurten aldiz, aurkeztu duzuen aurrekontua iksten dugu sintonia hori ez dagoela eta guri prioritariora ba urruti dagoela eta horregatik eman dugu ezezkoa.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):

Bai Maria nik aklarazio bat bakarrik nik uste dut hor informazio falta daukazuela zuen artean. Bilera bat edo bi ez dira egin bilera gehiago egin dira garbitasunarekin hori Juan karlosek badaki eta gero soterrauen gaia bai dago partida baina kontratazio prozedura bat dago eta badakizue eta badaki bera Juan Karlosek ze arazo ematen dauen eta zelan ibili gaien orduan nik ikusten dut hor deskonexio bat dagoela eta parke estaliak eta zera gelditu ginen azterketa bat egiteko eta hori bai Ibon eta bai Juan Karlosek badakize hori horrela dela. Azterketa hori egiteko eta gu prest gauz hori egiteko baina gero priorizatzeke orduan momentu honetan ez dugu jarri prioritario moduan. Hori da. Baina ez esan ez dela bete edo beste gauza batzuk egiten ari gazela.

KEPA URTEAGA (BILDU):

Nik parkearen harira Inaziok lehen esan dau be bai azterketa egin dugula eta egin dugu eta badakizue egin dugula eta badakizue Lacaixako parkea estaltzea proposamena egingo dugula ahal denean eta baita ere Inaziok esan dau estaltzearen hori edo jolas-gune estaliaren hori ez dela soilik La Caixako parkea estaltzea, be bai daukagu azokaren jolasgunea eta bi gune izango dira egiten denean baita ere esan du ez dakit entzun duzuen edo ez soberakinik egonez gero, be bai La Caixako parke estaliaren hori aurrera joan daitekeela eta egingo dela ahal izanez gero, nik hori entzun diot ez dakit entzun duzuen edo ez.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Ba soberakina zuk esan duzu ez dela prioritario zuentzako soberakina.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):

Klaro dago. Ez dakit beste interbentziorik dauen. Bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	20	
Aldeko botuak:	12	BILDU (11) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	7	EAJ-PNV (4) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak		

Beraz onartzen da

12.- 2014KO AURREKONTUAREN EXEKUZIO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA, 2014-09-30n. (2014RBAR0045)

Idazkariak Ogasun batzordearen diktamena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

2014ko aurrekontuaren exekuzio egoerari buruzko informazio bidaltzen du batzordeak 2014-09-30ri buruz, zenbaki laburpen hauen arabera:

A - GASTUAK (Datuak mila eurotan)

A.1 - ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO GASTUAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	ORDAINKETA GUZTIRA	BAJAK	ORDAINDU BARIK 2014- 09-30N
2.268,57	2.035,75	-224,70	8,11
	89,74%	9,90%	0,36%

A.2 - TXERTATUTAKO KREDITUAK (EXEKUZIOAN DAUDEN GASTUAK, 2013KO AURREK. LIKIDAZIOTIK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	BAIMENDUA	ERABILIA (adjudikatua)	ONARTUTA KO OBLIGAZIO AK (exekutaturik)	ORDAINDUA	SOBERAKI NA
1.642,63	1.640,60	965,48	555,12	555,12	2,03
100%	99,87%	58,77%	33,79%	33,79%	0,13%

A.3 – 2014KO URTEALDI KORRONTEA EDO

AURREKONTUA (mila euroan)

KAPITULUA	AURREK.	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA (adjudikatua)	AGINDUTA KOA (exekutaturik)	ORDAIND UA	ERABILGAR RI
I Pertsonalaren gastuak	9.755,19	6.837,58	6.837,58	6.837,58	6.837,58	2.917,61
	100%	70,09%	70,09%	70,09%	70,09%	29,91%
II Ondas. eta zerb. erost.	9.499,05	7.458,41	7.206,74	5.603,45	5.090,40	2.040,64
	100%	78,51%	75,86%	58,98%	53,58%	21,49%
III Maileguen inters.	64,48	33,43	33,43	33,43	33,43	31,05
	100%	51,84%	51,84%	51,84%	51,84%	48,16%
IV Transferentzia korronteak	5.949,55	4.164,40	4.163,64	3.814,21	3.667,38	1.785,15
	100%	69,99%	69,98%	64,10%	61,64%	30,01%
VI Inbertsioak	4.379,81	3.187,98	1.130,57	790,54	522,85	1.191,83
	100%	72,78%	25,81%	18,04%	11,93%	27,22%
VII Kapit. transferentziak	820,05	520,60	520,60	520,60	285,27	299,45
	100%	63,48%	63,48%	63,48%	34,78%	36,52%
VIII .Finant. aktib.	988,19	920,61	920,61	915,44	915,44	67,58
	100%	93,16%	93,16%	92,63%	92,63%	6,84%
IX Mailegu amortz.	1.055,87	833,49	833,49	833,49	833,49	222,38
	100%	78,93%	78,93%	78,93%	78,93%	21,07%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	32.512,20	23.956,49	21.646,65	19.378,73	18.185,85	8.555,71
	100%	73,68%	66,58%	59,51%	55,93%	26,32%
URTEALDI KORRONTEA + TXERTATUTA KO KREDITUAK GUZTIRA	34.154,82	25.597,09	22.612,13	19.903,85	18.740,97	8.557,73
	100%	74,94%	66,20%	58,27%	54,87%	25,06%

A.4 – DATOZEN EKITALDIAK (mila euroan)

URTEA	GASTU BAIMENDUA	GASTU ERABILIA
2015	1.590,99	206,78
		12,99%
2016	11,89	11,89
		100%
2017	11,89	11,89
		100%
2018	11,89	11,89
		100%
GUZTIRA DATOZEN EKITALDIAK	1.626,67	242,45
		14,90%

B – DIRU SARRERAK

B.1 ITXITAKO URTEALDIETAN DAUDEN ORDAINDU GABEKO SARRERAK (AURREKO URTEALDIETAKOAK)

ZENBATEKOA GUZTIRA	KOBRANTZAK GUZTIRA	BAJAK	KOBRATZEKO DAUDENAK 2014-09-30n
2.434,71	1.396,94	201,76	836,01
	62,556%	8,28%	37,43%

B. 3 2014EKO URTEALDI KORRONTEA - AURREKONTUA (mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK.	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK (likidatutako diru-sarrerak)	KOBRANTZA GARBIAK (% onartutako eskubideei buruz)	KOBRATZEKO DAUDENAK (% onartutako eskubideei buruz)	AURREK. DESBIDERATZ.
I Zuzeneko zergak	7.792,50	7.607,44	5.909,49	1.697,95	-185,06
	100%	97,62%	77,68%	22,31%	-2,38%
II Zeharkako zergak	550	381,02	318,35	62,66	-168,98
	100%	69,27%	83,55%	16,44%	-30,73%
III Tasak eta	6.562,25	5.278,29	4.578,80	699,49	-1.283,96

Esp.-kodea: 2014SAPL0014

prezioak	100%	80,43%	86,74%	13,25%	-19,57%
IV Transferentzia korronteak	13.773,77	10.328,21	9.980,03	348,19	-3.445,56
	100%	74,98%	96,62%	3,37%	-25,02%
V Ondare. sarrerak	241,2	118,25	49,16	69,09	-122,95
	100%	49,02%	41,57%	58,42%	-50,98%
VI Inoren. errealak.	291,2	67,70	57,32	10,38	-223,50
	100%	23,24%	84,67%	15,32%	-76,76%
VII Kapit. transf.	1.266,20	1.240,46	1.036,05	204,41	-25,74
	100%	97,96%	83,52%	16,47%	-2,04%
VIII Finan. akt. aldak.	811,39	743,81	373,88	369,93	-67,58
	100%	91,67%	50,26%	49,73%	-8,33%
IX Maileguak	1.218,48				-1.218,48
	100%				100%
URTEALDI KORRONTEA GUZTIRA	32.507	25.765,19	22.303,09	3.462,10	-4.741,81
	100%	79,26%	86,56%	13,43%	-20,74%
DIRUZAINZAKO SOBERAKINA, 2013KO LIKIDAZIOKOA	1.647,83				
URTEALDI KORRONTEA + SOBERAKINA + TXERTATUTAKO ZORDUNKETAK GUZTIRA	34.154,82	25.765,19	22.303,09	3.462,10	-8.389,63
	100%	75,43%	86,56%	13,43%	-24,57%

13.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO 3. HIRUHILEKOAN ONARTU DITUEN 2014KO AURREKONTUAREN KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA. (2014RBAR0046)

Idazkariak Ogasun batzordearen diktamena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

2014ko Aurrekontua Betetzeko arauen, 4. atalean, 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako kreditu aldaketan espedientei buruzko informazioa Udaltzarrari hiruhilero bidaltzeari dagokionez, Ogasun Batzordeak, kronologiaz ordenaturik, 2014ko 3. hiruhilekoan onartutako espedienteen laburpen honen berri ematen dio Udaltzarrari:

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-09-15ekoa, onartzen duena “1.0705.226.711.00.00 – Moxalen hazkuntza proiektua” partida sortzea, eta gastu hori finantzatuko da “1.0705.601.711.00.00-Moxalen Hazkuntza proiektua” kontusailetik 10.000 euro transferituta, izaera teknikoko kreditu-aldaketaren modalitatean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-09-22koa, onartzen duena “1.0803.626.222.01.01-TAOn Inbertsioak-Ferixalekuko gunea” kontusaila sortzea, eta gastu hori finantzatuko da “1.0803.227.222.01.07-TAOn zerbitzu azpikontratatua” kontusailetik 13.500€ transferiturik, izaera teknikoko kreditu aldaketaren modalitatean.

- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa, 2014-09-29koa, onartzen duena 1.300 €-an handitzea “1.0800.227.446.00.08 – Garraio publikoa” kontu sailaren diru-kopurua, “1.0812.601.531.00.00.2013 - Mendi Nekazaritza 2013ko planaren inbertsioak” kontu-sailetik bideratutako kreditu transferentziaren bidez.

14.- GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA, KOOP. ELK.; ELKARTEAREN KAPITALEAN EKARPENEA EGITEA. (2014RBAR0049)

Udal Plenoak, aho batez, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Arrasateko Udaltzarrak, 2010eko urriaren 7an eginiko bileran, Garaia Berrikuntza Elkartek bere asanblada orokorreko akordioaren bitartez, 2008/1/16ko dataz onartutako kapital gehikuntzari buruzko (Arrasateko Udalarik 1.000.000 euroko ekarpena eskatzen ziona) gaia aztertzerakoan, akordio hau hartu zuen:

I.- Ontzat ematea “Garaia Berrikuntza Gunea, Elk. Koop.” elkartearen kapitalaren 756.400 €ko ekarpena (eskatutako milioi arteko ekarpena osatzeko falta zena) egitea eta aipatu 756.400 €ak, 2008ko erabakiaren ondorioz kapital sozialerako nabitaeraz eman beharrekoak, era bonetan ordaintzea “Garaia Berrikuntza Gunea, Elk. Koop.” elkarteari:

** 159.950,74 € 2010ean, hainbat kontzeptutan “Garaia Berrikuntza Gunea, Elk. Koop.”ak Arrasateko Udalarekin dituen zorrak konpentsatuz.*

** Gainontzekoa, 596.449,26 €, ordainduko dira Garaia berrikuntza gunean Udalarik Eraikuntzen gaineko Zergatik datozen diru-sarrerak sortzen zaielakion heinean.*

.....

III.- 2010eko erabakiaren ondorioz kapitalaren nabitaerazko ekarpenari dagokionez, 331.527 €koa, eta Udalarik hori ordaintzea ezinezkoa egiten zaienez, momentuz etenda uztea planteatu da.

Akordio horren ondoren beste kapital gehikuntza onartu da, bai Garaian eta baita Arrasateko Udalean ere, 2013ko apirilaren 11ko dataz eta 2013ko apirilaren 30eko dataz, hurrenez hurren, baina

“Garaia Berrikuntza Gunea Elk. Koop.” elkartearen 2010/4/15eko asanblada orokorrak onartutako kapitalerako ekarpena Udalak, oraindik, onartu gabe dauka.

Kontuan izanik epe luze honetan, zoritxarrez egoera ez dela gehiegi aldatu, alde batetik, “Garaia Berrikuntza Gunea Koop. Elk.”-aren egoera ekonomiko-finantzieroak nahiko larria izaten jarraitzen duela eta, bestetik, Arrasateko Udalaren egoera ekonomikoa ez dela batere hobetu, oraindik krisialdiren ondorioak bere gordintasun osoz pairatzen dituelarik.

Kontuan izanik guztiz beharrezkoa dela, behingoz, kapital gehikuntzarekiko Udalaren egoera guztiz erregularizatzea, are gehiago kontuan hartzen badugu, kapital ekarpeneko kopuruak zehazteko orduan erabilitako irizpideen eztabaidagarritasunaren kaltetan gabe, elkartearen asanbladaren akordioa Arrasateko Udalarentzat loteslea dela.

Kontuan izanik aurrekontuetan gastu gehiago beregain hartzeko dagoen maniobra egiteko marjina eskasak behartzen duela 2010eko kapital gehikuntzaren ekarpena onartzekotan, bere ordaintetarako bide bakarra dela aurrekoaren antzerakoa, sortuko diren zergen konpentsazio (Ondasun Higiezin gaineko Zergak eta Eraikuntzaren gaineko zergak) bitartez egitea, hain zuzen ere.

Hori horrela, aho batez, hauxe proposatu dio Ogasun Batzordeak Udalbatzarrari:

I – Ontzat ematea Garaia Berrikuntza Gunea, Koop. Elkarteak” 2010/4/15eko asanbladan onartutako kapitalerako 331.527€ko ekarpena era honetan ordaintzea “Garaia Berrikuntza Gunea, Elk. Koop.” elkarteari:

- 2015etik aurrera Garaia Berrikuntza Gunean sortuko diren zergekin konpentsazioaren bidez.

II.- Alkate-udalburuari, edo legez ordezkatzan duen alkateordeari, ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko eta egitekoak egiteko.

15.- GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA: KAPITAL ALDAKETAREN BERRI EMATEA UDALBATZARRARI. (2014RBAR0050)

Idazkariak Ogasun batzordearen diktamena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

Arrasateko Udalak, Udalbatzarrak hartutako akordioaren ondorioz, “GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA” sozietateko kapital sozialean 2.676.618 € balioko partizipazioa dauka.

2014ko azaroaren 24ko datuz aipatu elkartearen idazkariak bere batzar orokorraren 2014/6/11ko akordioaren ziurtagiria bidali du, ondorengo adieraziz:

- azkeneko 5 urtetan bere jardueran galera ekonomikoak izanda eta Euskadiko kooperatibei buruzko legeak ezarritakoaren arabera, 6.512.718 euroko saldoa erregularizatzea erabaki dute, lehenengo borondatezko eta derrigorrezko erreserba fondoan %50ekoaren kontura, 252.331 euro, eta, gainontzekoa, 6.260.387 euro, kapital sozialetik murriztuz, bazkide bakoitzaren portzentajearen arabera.

Murrizketa horren ondorioz, Arrasateko Udalak “GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA”-ren kapital sozial osokoa duen % 9,074 partizipazioaren balioa 2.676.618€tako izatetik 2.108.574,92 €-tako izatera pasa da, hau da, bere balioa % 21,22ean murriztu da.

Gaia aztertu da Ogasun Batzordean eta kontuan hartuta Udalbatzarra izan zela bere egunean “GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA”-ren bazkidea izatea erabaki zuen organoa, aho batez, erabaki da Udalbatzarrari 2014ean burututako kapital murrizketaren berri ematea, honenbestez:

Arrasateko Udalaren Udalbatzarra jakinaren gainean jarri “GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA ELKARTE KOOPERATIBOA” 2014ko ekitaldian % 21,22ko kapital sozialaren murrizketa onartu dela, Udalak bertan duen % 9,074 partizipazioaren balioa 2.676.618 €-koa izatetik 2.108.574,92 €-koa izatera pasatu duen.

16.- PSE-EE UDAL TALDEAREN BOZERAMALE ALDAKETAREN BERRI EMATEA. (2011SSEC0008)

Udal Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko 24 eta 25 artikuluetan eta Udal Araudi Organikoaren 14. eta hurrengoetan aurrikusitakoaren arabera, Alkateak Udalbatzarrari berri ematen dio PSE-EE udal taldeak Bozeramalea aldatuko duela 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera eta Bozeramale berria Francisco Garcia Raya izango dela taldeko kideek aurkeztutako idatziaren baitan.

INAZIO AZKARRAGURIZAR (Lehendakaria):

Hau ere berri ematea da eta eskerrak ematea Aritzei egin dauen lanagatik benetan ona izan da eskerrik asko.

17.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

18.- GALDE-ESKEAK.

Ez da aipamenik egon.

INAZIO AZKARRAGURIZAR (Lehendakaria):

Ez dakit galderarik daukazuen bestela bukatutzat emango dugu plenoa eskerrik asko guztioi etortzeagatik eta bueno ondo pasau gabonak.

FRANCISCO GARCIA (PSE-EE):

Buenas tardes brevemente ya que no lo dice el Alcalde desearos a todos muchas felices fiestas en compañía de vuestras familiares y como no yo lo puedo decir pero tu si al pueblo de Arrasate.

INAZIO AZKARRAGURIZAR (Lehendakaria):

Acabo de decirlo. No te habran hecho la traducción.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 19.25etan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 18a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Inazio Azkarragaurizar Larrea